XIV. ERANSKINA

*Hautaketa prozesuaren oinarri espezifikoak, Gipuzkoako Foru Aldundiko irratiko operadoreen bi plaza oposizio-lehiaketa bidez betetzeko (OP2024/12).*

Oinarri espezifiko hauek osatzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiko hautaketa prozesuen oinarri orokorretan (II. eranskina) xedatutakoa.

*1. Sailkapena.*

Irratiko operadoreen plazak Gipuzkoako Foru Aldundiko langile funtzionarioen plantillakoak dira, eta C2 sailkapen azpitaldean sailkatzen dira, Administrazio Bereziko Eskalan, Zerbitzu Berezietako Azpieskalan, Ofizioetako Langileen Klasean.

*2. Deitutako plazak.*

Deitutako plazak 2024ko enplegu publikoko eskaintzakoak dira, zeintzuk onetsi baitziren Diputatuen Kontseiluaren 2024ko urriaren 8an hartutako erabakiaren bidez.

A) Txanda irekia:

— Sarbide orokorreko modalitatea: 2 plaza, derrigorrezko 2. hizkuntza eskakizuna dutenak.

Hala badagokio, deitutako plazen kopurua % 10 handitu ahal izango da, gehienez, indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera. Kasu horretan, ez da nahitaezkoa izango eskaerak aurkezteko beste epe bat irekitzea. Gehikuntza hori Diputatuen Kontseiluak erabaki beharko du, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko «Enplegu Publikoa» atalean argitaratu beharko da, karrerako funtzionario izateko Epaimahai Kalifikatzailearen proposamena argitaratu aurretik.

*3. Parte hartzeko baldintzak.*

* Baldintza orokorrak:

— Txanda irekia:

Sarbide orokorreko modalitatea: 3.1 oinarri orokorrean adierazitakoak.

* Baldintza espezifikoak:

— Eskatutako titulazioa: DBHn graduatua edo titulu baliokidea.

— Euskara: derrigorrezko 2. hizkuntza eskakizuna (3.1 f) eta 9.2 oinarri orokorrak).

— B gidabaimena.

*4. Lanpostu jakin batzuk esleitzeko baldintza espezifikoak.*

Deitutako lanpostuek ez dute parte hartzeko baldintzez bestelako baldintza espezifikorik.

*5. Hautaketa prozesu mota.*

Hautaketa sistema oposizio-lehiaketa izango da (9. oinarri orokorra).

5.1. Oposizioaldia.

Oposizioaldia 9.1 oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera arautuko da, eta gehienez 40 puntu lortu ahal izango dira.

Ariketaren gai zerrendak (orokorra eta espezifikoa) oinarri espezifiko hauen 7. atalaren ondoren daude jasota.

5.1.1. Lehenengo ariketa: Ezagutza teorikoen proba.

Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Ariketa honek bi atal izango ditu eta egun berean edo egun desberdinetan izan daitezke. Bi atalak egun berean egiten badira, atal horien ordena alda daiteke.

ANEXO XIV

*Bases específicas del proceso selectivo para el acceso, por concurso-oposición, a dos plazas de operador/a radio-emisora de la Diputación Foral de Gipuzkoa (OP2024/12).*

Las presentes bases específicas completan lo dispuesto en las bases generales (anexo II) de los procesos selectivos de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*1. Clasificación.*

Las plazas de operador/a radio-emisora pertenecen a la plantilla del personal funcionario de la Diputación Foral de Gipuzkoa y se clasifican en el subgrupo de clasificación C2, Escala de Administración Especial, Subescala Servicios Especiales, Clase Personal de Oficios.

*2. Plazas convocadas.*

Las plazas convocadas pertenecen a la oferta de empleo público de 2024, aprobada mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 8 de octubre de 2024.

A) Turno libre:

— Modalidad de acceso general: 2 plazas con perfil lingüístico 2 preceptivo.

El número de plazas convocadas podrá incrementarse, en su caso, hasta un máximo del 10 % de acuerdo con lo establecido en la legislación vigente. En tal caso, no será preceptiva la apertura de un nuevo plazo de presentación de solicitudes. Dicho incremento deberá ser acordado por el Consejo de Gobierno Foral y publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el apartado de «Empleo Público» de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa con anterioridad a la publicación de la propuesta del Tribunal Calificador de acceso a la condición de personal funcionario de carrera.

*3. Requisitos de participación.*

* Requisitos generales:

— Turno libre:

Modalidad de acceso general: los señalados en la base general 3.1.

* Requisitos específicos:

— Titulación requerida: Graduado/a en ESO o título equivalente.

— Euskera: Perfil lingüístico 2 preceptivo (Bases generales 3.1 f) y 9.2).

— Permiso de conducir B.

*4. Requisitos específicos para la adjudicación de determinados puestos de trabajo.*

Los puestos convocados no tienen requisitos específicos de provisión distintos de los requisitos de participación.

*5. Tipo de proceso selectivo.*

El sistema de selección será el de concurso-oposición (Base general 9).

5.1. Fase de oposición.

La fase de oposición se regirá por lo establecido en la base general 9.1 y se valorará hasta un máximo de 40 puntos.

Los temarios (general y específico) sobre los que versarán los ejercicios se acompañan a continuación del apartado 7 de las presentes bases específicas.

5.1.1. Primer ejercicio: Prueba de conocimientos teóricos.

De carácter obligatorio y eliminatorio.

Este ejercicio constará de dos apartados, a realizar el mismo día o en días diferentes. En caso de realizarse los dos apartados el mismo día, se podrá alterar el orden de los mismos.

EK\CV GAO-I-2024-07536

Ariketa honetan gehienez 14 puntu lortu ahal izango dira, eta gainditzeko gutxieneko puntuazioa 7 izango da; hala ere, probako atal bakoitzak gutxieneko puntuazio bat izango du gainditzeko.

— A) atala:

Hautazko erantzunak dituen galdera sorta bat erantzun beharko da idatziz; galderak deialdiko gai zerrenda orokorrean zehazten diren gaiei buruzkoak izango dira eta erantzun zuzen bat bakarrik izango dute. Epaimahai Kalifikatzaileak galderak ofizioz deusezta ditzake, horretarako arrazoiak ikusten baditu.

A) atalean gehienez ere 3,5 puntu lortu ahal izango dira, eta gainditzeko gutxieneko puntuazioa 1,4 puntu izango da. Nolanahi ere, aurkeztutako izangaien % 40 gutxieneko puntuazio horretara iritsiko ez balitz puntuazioa egokitu egingo litzateke gainditzen portzentaje hori atera dadin. Kasu horretan, gutxienezko puntuazio hori lortzen duten guztiek gaindituko dute atal hau.

Atal honetan, erantzun oker bakoitzak erantzun zuzen baten laurdena kenduko du; hau da, lau erantzun okerrek erantzun zuzen bat kenduko dute. Zuriz utzitako erantzunak ez dira erantzun oker izango.

— B) atala:

Hautazko erantzunak dituen galdera sorta bat erantzun beharko da idatziz; galderak deialdiko gai zerrenda espezifikoan zehazten diren gaiei buruzkoak izango dira eta erantzun zuzen bat bakarrik izango dute. Epaimahai Kalifikatzaileak galderak ofizioz deusezta ditzake, horretarako arrazoiak ikusten baditu.

B) atal hau 10,5 punturekin baloratuko da gehienez, eta gainditzeko 5,25 puntu lortu beharko dira gutxienez. Hala ere, lehenengo ariketa gainditu dutenen eta bigarren ariketa gainditu ez dutenen lan-poltsan sartuko dira, lehenengo ariketa gainditzen duten hautagaiez gain, B) atalera aurkeztutako izangaien % 40, lortutako puntuazioa edozein dela ere, baldin eta A) atala gainditu badute. Nolanahi ere, aipatutako % 40ko portzentajean lehen ariketa gainditzen duten pertsonak zenbatuko dira.

Atal honetan, erantzun oker bakoitzak erantzun zuzen baten herena kenduko du; hau da, hiru erantzun okerrek erantzun zuzen bat kenduko dute. Zuriz utzitako erantzunak ez dira erantzun oker izango.

5.1.2. Bigarren ariketa: Gai praktikoen proba.

Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Ariketa honetan, ebatzi beharko dira deialdiko gai zerrenda espezifikoko materiekin lotuta Epaimahai Kalifikatzaileak proposatuko dituen gai praktikoak.

Ariketa honetan gehienez 26 puntu lortu ahal izango dira, eta gainditzeko gutxieneko puntuazioa 13 izango da.

Ariketa hau kalifikatzeko ebaluatuko da izangaien ezagutza maila, egindako galderei emandako erantzunetan erakutsiko dutena. Hala, balioetsiko da erantzun horien zuzentasuna, egokitasuna, osotasuna eta zehaztasuna.

5.2. Lehiaketaldia.

Lehiaketaldian, Epaimahai Kalifikatzaileak zehazten dituen hautagaien merezimenduak aztertu eta balioetsiko dira, 9.3 oinarri orokorraren eta hurrengo ataletan ezarritakoaren arabera.

Lehiaketaldia ez da baztertzailea izango, eta fase horretan lortutako puntuazioak ezin izango dira kontuan hartu oposizioaldiko ariketak gainditzeko.

Lehiaketaldia gehienez 8,75 punturekin baloratuko da. Merezimenduak hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epearen azken egunera arte baloratuko dira.

Este ejercicio se valorará sobre un máximo de 14 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 7 puntos para superarlo, sin perjuicio de la puntuación mínima establecida para la superación de cada uno de sus apartados.

— Apartado A):

Consistirá en contestar por escrito un cuestionario de preguntas de respuesta alternativa, de las que sólo una será válida, referido a las materias que se recogen en el temario general. El Tribunal Calificador podrá anular de oficio preguntas de respuesta alternativa si aprecia que existen motivos para ello.

Este apartado A) se valorará sobre un máximo de 3,5 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 1,4 puntos para superarlo. No obstante, si el 40 % de las personas aspirantes presentadas no alcanzara dicha puntuación mínima, esta vendrá determinada por aquella que suponga la aprobación del 40 % de las personas aspirantes presentadas. En ese caso, todas las personas que obtengan dicha puntuación mínima superarán este apartado.

En este apartado cada error restará un cuarto del valor del acierto, es decir, por cada cuatro respuestas erróneas se descontará el valor de un acierto. Las respuestas en blanco no se considerarán errores.

— Apartado B):

Consistirá en contestar por escrito un cuestionario de preguntas de respuesta alternativa, de las que sólo una será válida, referido a las materias que se recogen en el temario específico. El Tribunal Calificador podrá anular de oficio preguntas de respuesta alternativa si aprecia que existen motivos para ello.

Este apartado B) se valorará sobre un máximo de 10,5 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 5,25 puntos para superarlo. No obstante, integrarán la bolsa de trabajo de aprobados/as del primer ejercicio y suspendidos/as del segundo, además de las personas aspirantes que superen el primer ejercicio, el 40 % de las personas aspirantes presentadas al apartado B), con independencia de la puntuación obtenida, siempre y cuando hayan superado el apartado A). En todo caso, en el porcentaje del 40 % mencionado se computarán las personas que superen el primer ejercicio.

En este apartado cada error restará un tercio del valor del acierto, es decir, por cada tres respuestas erróneas se descontará el valor de un acierto. Las respuestas en blanco no se considerarán errores.

5.1.2. Segundo ejercicio: Prueba de supuestos prácticos.

De carácter obligatorio y eliminatorio.

Este ejercicio consistirá en resolver el/los supuesto/s práctico/s que plantee el Tribunal Calificador relacionado/s con las materias que se indican en el temario específico de la convocatoria.

Este ejercicio se valorará sobre un máximo de 26 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 13 para superarlo.

Para la calificación de este ejercicio se evaluará el conocimiento de las personas aspirantes manifestado en sus respuestas a las cuestiones planteadas, valorando su grado de corrección, adecuación, integridad y precisión.

5.2. Fase de concurso.

La fase de concurso consistirá en el examen y valoración de los méritos de las personas aspirantes que determine el Tribunal Calificador de acuerdo con la base general 9.3 y con lo establecido en los apartados siguientes.

La fase de concurso no tendrá carácter eliminatorio y las puntuaciones obtenidas en la misma no podrán tenerse en cuenta para superar los ejercicios de la fase de oposición.

La fase de concurso se valorará hasta un máximo de 8,75 puntos. Los méritos se valorarán hasta el último día del plazo de presentación de solicitudes de participación en el proceso selectivo.

EK\CV GAO-I-2024-07536

5.2.1. Lan esperientzia (gehienez 7,5 puntu).

9.4.1 oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, gehienez ere 7,5 punturekin balioetsiko da Administrazio Publikoan karrerako funtzionario edo bitarteko funtzionario gisa, edota kontratupeko langile gisa egindako lana, ondorengo baremoaren arabera:

— Gehienez ere 7,5 punturekin balioetsiko da, 0,103 puntuz hilabete oso bakoitzeko, irratiko operadore lanpostuetan edo deitutako plazaren eginkizunen eduki bera duten lanpostuetan izandako esperientzia profesionala.

— Gehienez ere 3,75 punturekin balioetsiko da, 0,051 puntuz hilabete oso bakoitzeko, prebentzioko eta interbentzioko teknikari laguntzaileen lanpostuetan edo eduki bera duten lanpostuetan izandako lan esperientzia.

5.2.2. Titulazio akademiko ofizialak (gehienez, 1,25 puntu).

9.4.2 oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, hautaketa prozesuan parte hartzeko baldintza gisa eskatutakoez bestelako titulazio akademiko ofizialak edukitzea balioetsiko da, baldin eta eskainitako plazen zereginak betetzeko eragin zuzena eta berariazkoa badute.

Merezimendu gisa adierazitako goragoko titulazio bat eskuratzeko behar diren tituluak ez dira balioetsiko.

Atal honetako tituluengatik gehienez ere 1,25 puntu lortu ahal izango dira, ondorengo baremoaren arabera.

— Nekazaritza lanbide-arloko teknikari edo baliokidea den titulua: 1,25 puntu.

*6. Euskara-proba.*

Euskararen 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probak egingo dira soilik.

Euskarako proba egiteko, deialdi bakarrari eta hautagaien identifikazioari buruz 9.1.3 oinarri orokorrean ezarritakoa aplikatuko da.

*7. Emakumeen aldeko lehentasun klausula.*

Azken puntuazioan berdinketa gertatuz gero, lehentasuna emango zaie emakumeei, deialdiaren xede den plazan % 40 baino gutxiago baitira.

GAI ZERRENDA OROKORRA

1. gaia. 1978ko Konstituzioa. Konstituzioaren printzipioak: eskubidezko gizarte eta demokrazia estatua. Espainiako Konstituzioaren balio gorenak. Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak. Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak. Euskara Estatutuan.

2. gaia. Lurralde historikoak. Batzar Nagusiak. Gipuzkoako Foru Aldundia.

3. gaia. Administrazio prozedura: kontzeptua eta izaera. Hasiera, antolamendua, instrukzioa, eta amaiera.

4. gaia. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina: xedea, aplikazio eremua eta printzipio orokorrak.

GAI ZERRENDA ESPEZIFIKOA

5. gaia. Gipuzkoako geografiari buruzko ezagutza: orografia, klima, landaredia, hidrografia, naturaguneak, bide sarea, herriguneak.

5.2.1. Experiencia profesional (máximo 7,5 puntos).

De acuerdo con la base general 9.4.1, se valorará, hasta un máximo de 7,5 puntos, la experiencia profesional en Administraciones Públicas como personal funcionario de carrera o interino, o como personal laboral, conforme al siguiente baremo:

— Se valorará con un máximo de 7,5 puntos, a razón de 0,103 puntos por mes completo, la experiencia profesional en el desempeño de puestos de trabajo de operador/a de radio-emisora o de puestos de contenido igual al de las funciones de la plaza convocada.

— Se valorará con un máximo de 3,75 puntos, a razón de 0,051 puntos por mes completo, la experiencia profesional en el desempeño de puestos de trabajo de auxiliar técnico/a de prevención e intervención o de puestos de contenido igual.

5.2.2. Titulaciones académicas de carácter oficial (máximo 1,25 puntos).

De acuerdo con lo establecido en la base general 9.4.2, se valorará, siempre y cuando redunden directa y específicamente en el desempeño de las funciones de las plazas convocadas, la posesión de titulaciones académicas de carácter oficial distintas de la exigida como requisito de participación.

No serán valoradas aquellas titulaciones necesarias para obtener otra superior alegada como mérito.

Los títulos de este apartado se valorarán hasta un máximo de 1,25 puntos de acuerdo con el siguiente baremo:

— Título de Técnico/a o equivalente de la familia profesional Agraria: 1,25 puntos.

*6. Prueba de euskera.*

Se realizarán pruebas únicamente para la acreditación de los conocimientos de euskera del perfil lingüístico 2.

Para la realización de la prueba de euskera resultará de aplicación lo establecido en la base general 9.1.3 sobre el llamamiento único y la identificación de las personas aspirantes.

*7. Cláusula de prioridad a favor de las mujeres.*

En caso de empate en la puntuación final se dará prioridad a las mujeres, toda vez que no están representadas en más de un 40 % en la plaza objeto de la convocatoria.

TEMARIO GENERAL

Tema 1. La Constitución de 1978. Los principios constitucionales: el Estado social y democrático de derecho. Los valores superiores de la Constitución. El Estatuto de Autonomía del País vasco. Las competencias del País Vasco. Los poderes del País Vasco. El euskera en el Estatuto.

Tema 2. Los Territorios Históricos. Las Juntas Generales. La Diputación Foral de Gipuzkoa.

Tema 3. El procedimiento administrativo: concepto y naturaleza. Iniciación, ordenación, instrucción, y finalización.

Tema 4. Texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres: objeto, ámbito de aplicación y principios generales.

TEMARIO ESPECÍFICO

Tema 5. Conocimientos geográficos de Gipuzkoa: orografía, clima, vegetación, hidrografía, espacios naturales, red viaria, núcleos de población.

EK\CV GAO-I-2024-07536

6. gaia. Kartografiari eta orientazioari buruzko oinarrizko kontzeptuak. Kartografia. UTM proiekzioa. Eskalak eta zeinu konbentzionalak. Sestra kurbak. Interpretazioa. Koordenatu sistemak: geografikoak, UTM. Nabigazioa. Posizionamendu globaleko sistemak (GPS).

7. gaia. QGIS: zenbait geruzatako proiektuak sortzea. Geruzak sortu eta editatzea. Zenbait formatutako geruzak inportatu eta esportatzea.

8. gaia. Bisore geografikoak: Geoeuskadi bisorea, b5m. Funtzioak, erabilera eta aplikazioak.

9. gaia. Geolokalizazioko aplikazioak: ORUXMAPS. Funtzioak, erabilera eta aplikazioak.

10. gaia. Erabiltzaile mailako ezagutza Windows, Word eta Excelen. Funtzioak, erabilera eta aplikazioak.

11. gaia. Komunikazio ekipoen oinarrizko ezaugarriak. Irrati bidezko ekipoak. Komunikazio sistema: Analogikoa, Tetra, DMR. Irrati frekuentziak. Irrati bidezko komunikazioen lengoaia. ICAO kodea. Q kodea.

12. gaia. Komunikazioa. Sarrera. Komunikazioko oztopoak eta akatsak. Ahozko komunikazioa. Osagai paralinguistikoak. Hitzik gabeko komunikazioa. Telefono bidezko arreta: telefono bidezko arreta larrialdi zerbitzuetan. Telefonoaren alde onak eta txarrak. Larrialdien arretako ekintzak. Telefono bidezko komunikazioaren osagaiak. Telefono bidezko elkarrizketaren egitura faseak, deiak egitean eta jasotzean. Larrialdiei aurre egiteko jarduketak.

13. gaia. Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistema, ezaugarriak eta zerbitzuak. Larrialdi planak. Plana aktibatzea. Faseak eta egoerak. Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritzak parte hartuz gero.

14. gaia. Fenomeno meteorologiko kaltegarriak aurreikusi, behatu eta haien aurrean jarduteko protokoloa.

15. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko Baso-suteetarako Larrialdiko Plan Berezia.

16. gaia. Baso-suteak, Gipuzkoan. Arrisku arrazoiak, eremuak eta garaiak. Prebentzioa. Sute itzalketa.

17. gaia. 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako Mendiena.

18. gaia. 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko natura ondarea kontserbatzeari buruzkoa.

19. gaia. Ehiza, Gipuzkoan. Ehizarako egun eta ordu baliodunak. Ehiza larria. Ehiza, segurtasun eremuetan eta babesguneetan. Segurtasun tartea.

20. gaia. Ibai arrantza, Gipuzkoan. Arrantzarako aldi, egun eta ordu baliodunak. Ibaietako faunaren babesa. Arrantzan jarduteko ibai, erreka eta urtegiak.

Tema 6. Conceptos básicos de cartografía y orientación. Cartografía. Proyección UTM. Escala y signos convencionales. Curvas de nivel. Interpretación. Sistemas de coordenadas: Geográficas, UTM. Navegación. Sistemas de posicionamiento global (GPS).

Tema 7. QGIS: Crear proyectos con distintas capas. Crear y editar capas. Importar y exportar capas en distintos formatos.

Tema 8. Visores geográficos: Visor Geoeuskadi, b5m. Sus funciones, usos y aplicaciones.

Tema 9. Aplicaciones de geolocalización: ORUXMAPS. Sus funciones, usos y aplicaciones.

Tema 10. Conocimiento a nivel de usuario de Windows, Word, Excel. Sus funciones, usos y aplicaciones.

Tema 11. Características generales de los equipos de comunicaciones. Equipos de comunicación vía radio. Sistema de comunicación: Analógico, Tetra, DMR. Frecuencias de radio. Lenguaje en comunicaciones por radio. Código ICAO. Código Q.

Tema 12. La comunicación. Introducción. Barreras y errores en la comunicación. Comunicación verbal. Componentes paralingüísticos. La comunicación no verbal. La atención telefónica: La atención telefónica en los servicios de emergencia. Ventajas e inconvenientes del teléfono. Acciones en la atención de emergencias. Componentes de la comunicación telefónica. Fases estructurales de la conversación telefónica en recepción y en emisión. Actuaciones ante la emergencia.

Tema 13. El Sistema Vasco de Atención de Emergencias (SVAE), sus características y sus servicios. Planes de Emergencia. Activación del Plan. Fases y Situaciones. Tácticas operativas del Sistema Vasco de Atención de Emergencias con posible participación de la Dirección de Montes y Medio Natural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Tema 14. Protocolo de predicción, vigilancia y actuación ante fenómenos meteorológicos adversos.

Tema 15. Plan Especial de Emergencias por Riesgo de Incendios Forestales de la CAPV.

Tema 16. Incendios Forestales en Gipuzkoa. Causas, zonas y épocas de peligro. Prevención. Extinción.

Tema 17. Norma Foral 7/2006 de 20 de octubre, de Montes de Gipuzkoa.

Tema 18. Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de conservación del patrimonio natural de Euskadi.

Tema 19. Caza en Gipuzkoa. Días y horarios hábiles. Caza mayor. Caza en zonas de seguridad y espacios protegidos. Distancia de seguridad.

Tema 20. Pesca continental en Gipuzkoa. Períodos, días y horas hábiles. Protección a la fauna piscícola. Ríos, regatas y embalses autorizados para la pesca.

EK\CV GAO-I-2024-07536